

NEREKIÑ ERAMAN NAI EZ NITUSKEN BI ABESTI ZAAR



¿Cuánta música de la que contaron nuestros antepasados se habrá perdido para siempre en el correr de los tiempos? No lo sabemos, pero sospechamos que tal cosa, lamentablemente, ha ocurrido. «OARSO» se honra en publicar dos melodías (una canción de cuna oída a su madre siendo él niño y un himno procesionario a Santa María Magdalena que cantaban conjuntamente el viejo Orfeón Renteriano, Banda y Pueblo, aprendido de su tía María) que remitidas por D. Nicanor Albisu Dambolenea, músico renteriano, no precisan mayor comentario, pues tal como nos las envía, incluídas dedicatorias, las trasladamos a nuestras páginas. En «OARSO» y en el Archivo de Compositores Vascos, «Euskal ereslarien Bilduma», «EREBIL», de Rentería, quedará para siempre algo que podemos considerar nuestro y que estuvo en trance de desaparecer. Nuestro agradecimiento a quien ha evitado que esto ocurriera.

Mende onen asieran, Madalen eguneko prozesiyuan ORFEON RENTERIANOK, BANDA ta ERRIAREKIÑ batera, kantatzen omen zuan Ereserkiya, ni ume nitzala gure izeba Mariari entzunaz ikasi ta goguan geldittu ta daukatena

Nere adiskide Antontxuri, 1982 gko. Madalen Jaietan, biotzez

Atarrenek

Jai-za Ma-ri-a Ma-da-le-na-ri au-hol-dun ja-de te-de Ni-el-
 Jai-za Ma-ri-a Ma-da-le-na-ri e-ma-te-nur-jur-ti-jok-ju
 es-kar-te-ri e-mo-te-nur-jur-ti-jok-ju es-kar-te-ri Ma-da-le-na-ri

GURE AMAREN SEASKABESTIYA (Berak kantatzen zuen erara moldatua)

Nere arreba KARMENeri biotz biotzez, gure aurtzarako denbora goxo aiek gogoratuz.

Zenbat bider entzun ote diot nik gure amari, patxaran ta ao itxiaz, guri lo arrasteko kantatzen zigun kanta trixti au...! Lenda-bizi neri noski, ta gero, nere ondoren etorri ziren beste lau senidieiri. Bai, zenbat bider. Askeneko arrebatxua jayo, ama pixkor-tu ta aurtxoa zaitzen asi zanian, or nabaitzen dut berri berritik neri ainbeste gustatzen zitzaidan kanta trixti ura kantatzen. Amairu urte nittun nik orduan ta koruko tiple nitzanez, elizako kanta franko banekizkien, bañon ura bezelakorik ez. Animetako sortziurrenetan kantatzen genittuenak baño ere askoz trixti-gua zen neretzat. Aurra esnatu etsedif bereganatu ta ixilka galdetu nion, ia zer kanta zen ura, ia nun ikasiya zuen, eta amak ixildurik erantzun zian: «Kanta au, itzallan batez kartzelan asmatutako bertso batzuen doñua izan bear du». Ta orren urren ezantzian: «Zuri ere ttikiya ziñala, seaskan lotarako jartzen ziñutenian, orain oni bezelaxe kanta au kantatzen nizun, eta zuk, expaña jarrita ixil ixilik negar egiten zenuen». Zerbaitengatik dut nik, orrenbeste urteren buruan, orren gogoko eta mattia abesti au. Goguan al daukasu zuk...?

Etzagonez gure ama aifñ oker kanta orren jatorriaz. Orain urte batzuek, Aita Zabalak DIARIO VASCOen eman zuen gertakizun orren berri, bertso pare bat argitaratuz, eta beren letra erabat ondo zetorkiyon musika orreri.

ALBISUTAR NICANOR